

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 416/2021 Erabakia, uztailaren 6koa. Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura erakusteko eta zabaltzeko programak eta jaialdiak garatzeko dirulaguntza deialdia, ekainaren 22ko 392/2021 Erabakiaren bidez onetsia, aldatzea

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 22ko 392/2021 Erabakiaren bidez, onetsi zen Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura erakusteko eta zabaltzeko programak eta jaialdiak garatzeko dirulaguntzen 2021eko deialdia.

Zenbait akats aurkitu dira aipatutako erabakiaren I. eranskinean. Eranskin horretan deialdiren baldintzak jasotzen dira, udalek eta kuadrillek sustatutako programa eta jaialdietarako proiektuak balioesteko irizpideei dagokienez (2. modalitatea). Hori dela eta, balioespen irizpide horiek jasotzen dituen 9. artikuluko zenbait apartatu aldatu behar dira.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea aipatutako erabakiaren I. eranskineko 9. artikuluko 2. modalitateko 6. apartatua, udalek eta kuadrillek sustatutako programa eta jaialdietarako balioespen irizpideei buruzkoa, eta honela uztea:

“6. Zenbait udalek batera edo kuadrilla batek sustatu dituzten programak. Bi kasuetan, jarduerak udalerrri batean baino gehiagotan egin beharko dira. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

- Hiru udalerririk baino gehiagok edo kuadrilla batek sustatutakoak. 5 puntu.
- Hiru udalerririk sustatutakoak. 3 puntu.
- Bi udalerririk sustatutakoak. 2 puntu.”

Bigarrena. Aldatzea aipatutako I. eranskineko 9. artikuluko 2. modalitateko amaierako koadroa, udalek eta kuadrillek sustatutako programa eta jaialdietarako balioespen irizpideei buruzkoa, eta honela uztea:

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA
0 eta 49 bitartean	0
50 eta 65 bitartean	40
66 eta 75 bitartean	50
76 eta 100 bitartean	60

Hirugarrena. Aldatzea ekainaren 22ko 392/2021 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 7. artikuluan aipatzen den eskaerak aurkezteko epea. Eskaerak aurkezteko hogeitun egun natural gehiago izango dira, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Ebazpen honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE